

Sin./Fdo.: ANA BELEN BARAHONA VEGA 2024-01-18
LAN ARRISKUEN PREBENTZIORAKO ETA LAN OSASUNERAKO ZERB. BURUA
JEFE/A SERVICIO DE PREVENCIÓN DE RIESGOS Y SALUD LABORAL

Sin./Fdo.: ESTHER GONZALEZ DE AUDIKANA URZELAI 2024-01-18
FUNTZIO PUBLIKOAREN ZUZENDARIORDEA
SUBDIRECTOR/A DE FUNCIÓN PÚBLICA

Sin./Fdo.: CESAR GONZALEZ DE HEREDIA MARURI 2024-01-18
ARAUBIDE JURIDIKOAREN ETA FUNTZIO PUBLIKOAREN ZUZEND. NAGUSIA-REN ZUZENDARI NAGUSIA
DIRECTOR/A GENERAL DE DIRECCIÓN GENERAL DE RÉGIMEN JURÍDICO Y FUNCIÓN PÚBLICA

Sin./Fdo.: AGER IZAGIRRE LOROÑO - 2024-01-19
FORU DIPUTATUA ETA IDAZKARIA
DIPUTADO/A FORAL Y SECRETARIO/A

BIZKAIKO FORU ALDUNDIA-DIPUTACION FORAL DE BIZKAIA - 2024-01-25
GZko 3.gaia onartuta - Aprobado, asunto 3) de OD

Bizkaiko Foru Aldundiaren **ERABAKIA**, lanean sexu-jazarpenari, sexuan oinarritutako jazarpenari eta sexu-askatasunaren aurkako beste jokabide batzuei aurre egiteko prebentzio- eta jarduketako-Protokoloa onartzen duena.

ACUERDO de la Diputación Foral de Bizkaia por el que se aprueba el Protocolo de prevención y actuación frente al acoso sexual, acoso por razón de sexo y otras conductas contrarias a la libertad sexual en el ámbito laboral.

2006ko azaroaren 7an, Aldundiak langileen laneko jazarpenari dagozkion prebentzioari eta kexen konponketari buruzko jarduera-protokoloa onetsi zuen. Protokolo hori 2014ko abenduaren 2an aldatu zen, eta sexu-jazarpenera eta sexuan oinarritutako jazarpena sartu ziren haren eremu objektiboan.

La Diputación aprobó el 7 de noviembre de 2006 el Protocolo de Actuación sobre Prevención y solución de quejas en materia de acoso en el ámbito del trabajo. El citado protocolo fue modificado el 2 de diciembre de 2014, incluyendo dentro de su ámbito objetivo el acoso sexual y por razón de sexo.

2018an, beharrezkotzat jo zen protokolo espezifiko bat egitea, eremu horretan gerta daitezkeen berezitasunak jasotzeko, eta lanean sexu-jazarpenari eta sexuan oinarritutako jazarpenari aurre egiteko Protokoloa onetsi zen.

En el año 2018 se entiende necesario realizar un protocolo específico que recoja las singularidades que puedan darse en este ámbito, aprobándose el Protocolo de Prevención y Actuación frente al Acoso Sexual y Acoso por Razón de Sexo.

Ondoren, 2020ko martxoaren 3an, Bizkaiko Foru Aldundiaren Kontseiluak sexu-jazarpenaren eta sexuan oinarritutako jazarpenaren kontra egiteko printzipioen eta orientazioen adierazpena onetsi zuen, eta konpromisoa hartu zen ezertariko sexu-jazarpenik edo sexuan oinarritutako jazarpenik ez toleratzeko eta behar diren neurriak hartzeko halako jarrera eta portaerei aurre egiteko eta haiek desagerrarazteko.

Posteriormente, el 3 de marzo de 2020, se aprobó por el Consejo de la Diputación Foral de Bizkaia la Declaración de principios y orientaciones a la acción contra el acoso sexual y el acoso por razón de sexo, en la cual se establece el compromiso de esta diputación a no tolerar ninguna actuación de acoso sexual o por razón de sexo y adoptar las medidas necesarias para hacer frente a dichas actitudes y comportamientos al objeto de hacerles desaparecer.

4/2018 Foru Arauak bere 32. artikuluan xedatzen du Bizkaiko foru-sektore publikoak neurriak hartuko dituela genero-ikuspegia txertatzeko lan-osasunean eta lan-arriskuen prebentzioan, eta neurri horietako bat da sexu-jazarpenari eta sexuan oinarritutako jazarpenari aurre egiteko protokolo berri bat egitea, zeinak indarkeria matxista desagerrarazteko prebentzio-

La Norma Foral 4/2018 ya estableció en su artículo 32 entre las medidas a adoptar por el Sector Público Foral de Bizkaia para integrar la perspectiva de género en el ámbito de la salud laboral y la prevención de los riesgos laborales la de desarrollar un nuevo protocolo de acoso sexual y acoso por razón de sexo con medidas de prevención, actuación, seguimiento y





jarduketa-, jarraipen- eta ebaluazio-neurriak izango baititu.

Orain, beharrezkotzat jotzen da protokolo berri bat egitea 2018an onartutakoa ordeztzeko, egin berri diren arau-aldaketara egokitzeko eta aldaketa horiek kontuan hartzeko. Bizkaiko Foru Aldundiak bere protokoloak egokitzeko premian sakontzen jarraitu behar du, langile guztien eskubideak (askatasuna, duintasuna, osasuna, sexu-askatasuna edo osotasun fisikoa eta/edo psikikoa) urratzen dituzten adierazpen horiek prebenitzeko.

Horregatik, lanean sexu-jazarpenari, sexuan oinarritutako jazarpenari eta sexu-askatasunaren aurkako beste jokabide batzuei aurre egiteko prebentzio- eta Jarduketa-protokoloa onesteko eskatzen da, Bizkaiko Foru Aldundiko Negoziazio Mahaia eztabaidatu eta onetsi ondoren.

II

Gaur egungo araudian nabarmendutako alderdietako bat da arlo horretako protokoloen publikitatea eman behar zaiela, protokoloaren aplikazio-eremua dela-eta haren eraginpean egon daitezkeen langileek eta pertsonak aukera izan dezaten jakiteko zer baliabide dituzten halako egoerak kudeatzeko.

Adierazitakoaren ondorioz, hau sinatzen duenak honako erabaki-proiektu hau proposatzen dizu, aztertu eta, hala badagokio, Foru Aldundiari aurkez diezaiozun:

ERABAKIA

LEHENA.- lanean sexu-jazarpenari, sexuan oinarritutako jazarpenari eta sexu-askatasunaren aurkako beste jokabide batzuei aurre egiteko

evaluación para la erradicación de la violencia machista

Actualmente, se estima necesario elaborar un nuevo protocolo que sustituya al aprobado en el año 2018 con objeto de adaptarse y tener en cuenta los recientes cambios normativos que se han producido. La Diputación Foral de Bizkaia debe seguir profundizando en la necesidad de adecuar sus protocolos con el objetivo de prevenir estas expresiones que vulneran derechos como el de la libertad, dignidad, salud, libertad sexual o la integridad física y/o psíquica de todas las personas empleadas.

Por ello, se solicita la aprobación del Protocolo de prevención y actuación frente al acoso sexual, acoso por razón de sexo y otras conductas contrarias a la libertad sexual en el ámbito laboral, tras su debate y aprobación por parte de la Mesa de Negociación de la Diputación Foral de BIZKAIA

II

Una de las cuestiones remarcadas en la normativa actual es la necesidad de dar publicidad a los protocolos de esta materia de modo que tanto el personal como aquellas personas que por su ámbito de aplicación puedan verse afectadas por el mismo.

Por lo expuesto, quien suscribe, tiene a bien someter a la consideración de V.I., para su elevación a la diputación Foral, si procede, el siguiente proyecto de

ACUERDO

PRIMERO.- Aprobar el protocolo de prevención y actuación frente al acoso sexual, acoso por razón de sexo y otras conductas contrarias a la libertad sexual





prebentzio- eta Jarduketa-protokoloa onestea, erabaki honen eranskinaren arabera. en el ámbito laboral, según Anexo al presente Acuerdo

BIGARRENA.- Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen 2015eko urriaren 1eko 39/2015 Legearen 35. eta 88. artikuluetan jasotakoa betetzeko, ebazpen honen aurrekari gisa eta berau arrazoitzeko balio du Lan Arriskuen Prebentziorako eta Lan Osasunerako Zerbitzuaren txostenak, eta erabaki honi erantsi zaio, behar diren ondorio guztietarako.

SEGUNDO:- A los efectos previstos en los Artículos 35 y 88 de la Ley 39/2015, de 1 de Octubre, del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas, sirve de antecedente y motivación a la presente resolución el Informe del Servicio de Servicio de Prevención de Riesgos y Salud Laboral que se incorpora a todos los efectos.

HIRUGARRENA.- Protokolo hau Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratzeko agindua ematea.

TERCERO:- Ordenar la publicación en el Boletín Oficial de Bizkaia el citado Protocolo.

LAUGARRENA.- Akordio hau Zerbitzu Orokorretako Zerbitzuei jakinaraztea

CUARTO:- Comunicar el presente Acuerdo, a los Servicios de Servicios Generales.

Lan Arriskuen Prebentziorako eta Lan Osasunerako Zerbitzuko burua/ Jefa del Servicio de Prevención de Riesgos y Salud Laboral: ANA BELÉN BARAHONA VEGA

Funtzio Publikoaren zuzendariordea/ La Subdirectora de función Pública. ESTHER GONZÁLEZ DE AUDIKANA URZELAI

Araubide Juridikoaren eta Funtzio Publikoaren zuzendari nagusia/ El Director General de Régimen Jurídico y Función Pública. CÉSAR GONZÁLEZ DE HEREDIA MARURI.

Aurreko tramitean ezarri denarekin bat, Gobernu Kontseiluari aurkeztu behar zaio/ De conformidad con el trámite precedente, elévese al Consejo de Gobierno

Herri Administrazioarako eta Erakunde Harremanetarako foru-diputatua/ el Diputado Foral de Administración Pública y Relaciones Institucionales. AGER IZAGIRRE LOROÑO.





ERANSKINA:

LAN-EREMUAN SEXU-JAZARPENA, SEXU-ARRAZOIENGATIKO JAZARPENA ETA SEXU-ASKATASUNAREN AURKAKO BESTE JOKABIDE BATZUK PREBENITZEKO ETA HORIEN AURKA JARDUTEKO PROTOKOLOA.

1.- SARRERA

Lan-eremuan sexu-jazarpena eta sexuan oinarritutako jazarpena, bai eta sexu-askatasunaren aurkako beste jokabide batzuk ere, indarkeria matxistaren adierazgarritzat hartzen dira, eta, beraz, emakumeen eta gizonen arteko tratu-berdintasunari eragiten dion eskubide-urraketatzat.

Emakumeen eta Gizonen Berdintasun Eragingarrirako martxoaren 22ko 3/2007 Lege Organikoaren 51. artikuluan oinarritzat jotzen da herri-administrazioek, bakoitzak bere eskumenen esparruan, babes-neurri eraginkorrak ezarri beharko dituztela sexu-jazarpenearen eta sexu-arrazoiengatiko jazarpenearen aurrean.

Beste alde batetik, eta oinarritzko izaerarekin, Sexu Askatasunaren Berme Integralari buruzko irailaren 6ko 10/2022 Lege Organikoak bere 13. artikuluan xedatzen duenez, administrazio publikoek lan-baldintza egokiak sustatu beharko dituzte, laneko sexu-askatasunaren eta osotasun moralaren aurkako jokabideak saihesteko, sexu-jazarpenean eta sexuagatiko jazarpenean berebiziko arreta jarritz, eremu digitalean egindakoak barne. Era berean, adierazten du berariazko prozedurak edo protokoloak ezarri beharko direla jokabide horiek prebenitzeko, goiz detektatzeko, salaketa jartzeko eta jokabide horien biktima izan direnei aholkuak emateko.

Euskadin, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legea onartu zenetik –aitzindaria eta erreferentea berdintasun-politika publikoen garapenean–, aurrera egin da arlo horretan.

Hala, duela gutxi onartu da martxoaren 16ko 1/2023 Legegintzako Dekretua, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako eta Emakumeen aurkako Indarkeria Matxistarik Gabeko Bizitzetarako Legearen testu bategina onartzen duena, martxoaren 3ko 1/2022 Legearen azken xedapenetako zortzigarrenean xedatutakoari jarraituz onartua, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Legea bigarren aldiz aldatzen duena eta otsailaren 18ko 4/2005 Legea, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerakoa, berariaz indargabetzen duena.

Legegintzako Dekretuak azpimarratzen du, Autonomia Erkidegoko erakunde erkideen zuzeneko ekintzari kalterik egin gabe, emakumeen eta gizonen berdintasunaren arloko arauak betearaztea lurralde historikoetako foru-organoei eta toki-administrazioari dagokiela. Hala, 6. artikulua zehazten du zer eginkizun dituzten foru-administrazioek berdintasunaren arloan, eta, besteak beste, honako hauek aipatzen ditu: arauak, jarraibideak eta gidalerroak egitea, Legegintzako Dekretuan bertan xedatutakoa beren lurralde-errealitatera egokitzeko, edo beren lurraldean gertatzen diren sexuagatiko diskriminazio-egoerak hautematea eta egoera horiek desagerrarazteko neurriak hartzea, esan bezala, jazarpena izanik diskriminazio horren adierazgarrietako bat.

Bizkaiko Foru Aldundiak hainbat neurri hartu ditu azken urteotan genero-berdintasuna sustatzeko eta, bereziki, sexu-jazarpenearen eta sexu-arrazoiengatiko jazarpenearen aurka borrokatzeko.

Hala, araudiari dagokionez, Aldundiak 4/2018 Foru Araua du, ekainaren 20koa, emakumeen eta gizonen berdintasunerakoa.





Bestalde, plangintza estrategikoaren esparruan, 2000. urteaz geroztik, Bizkaiko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako hainbat Plan onartu dira, eta horietako azkena Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako VI. Foru Plana da. Plan horrek genero-ikuspegia langileen kudeaketan txertatzeko beharra sakontzen du, eta 4/2018 Foru Arauan oinarrituta onartu zen.

Arlo horretako protokoloak lantzeari dagokionez, Aldundiak lan-arloko jazarpenaren arloko kexak prebenitu eta konpontzeari buruzko jarduera-protokoloa onartu zuen 2006ko azaroaren 7an. Aipatutako protokoloa 2014ko abenduaren 2an aldatu zen, eta sexu-jazarpenera eta sexu-arrazoiengatiko jazarpena sartu ziren haren eremu objektiboan. 2018an, beharrezkotzat jo zen esparru horretan gerta zitezkeen berezitasunak jasoko zituen protokolo espezifiko bat egitea, eta sexu-jazarpenaren eta sexuan oinarritutako jazarpenaren aurkako prebentzio- eta jarduera-protokoloa onartzea.

Ondoren, 2020ko martxoaren 3an, Bizkaiko Foru Aldundiaren Kontseiluak sexu-jazarpenaren eta sexu-arrazoiengatiko jazarpenaren aurkako printzipioen eta orientabideen adierazpena onartu zuen. Bertan, Foru Aldundiak konpromisoa hartzen zuen sexu-jazarpeneko edo sexuan oinarritutako jazarpeneko jarduerarik ez onartzeko eta jarrera eta jokabide horiei aurre egiteko beharrezkoak ziren neurriak hartzeko, horiek guztiak desagerraraztearren.

Gaur egun, beharrezkotzat jotzen da 2018an onartutakoa ordezkatzeko duen protokolo berri bat egitea, azalpen honen hasieran aipatu diren arau-aldaketak egokitzeko eta kontuan hartzeko. Bizkaiko Foru Aldundiak bere protokoloak egokitzeko premian sakontzen jarraitu behar du, langile guztien askatasuna, duintasuna, osasuna, sexu-askatasuna edo osotasun fisiko eta/edo psikikoa urratzen duten adierazpen horiek prebenitzeko.

4/2018 Foru Arauak bere 32. artikuluan jada ezarri zuen Bizkaiko Foru Sektore Publikoak hartu beharreko neurrien artean, genero-ikuspegia lan-osasunaren eta lan-arriskuen prebentzioaren eremuan txertatzeko, sexu-jazarpenaren eta sexu-arrazoiengatiko jazarpenaren protokolo berri bat garatzea, indarkeria matxista desagerrarazteko prebentzio-, jarduketa-, jarraipen- eta ebaluazio-neurriak eta guzti.

Beraz, protokolo hau, 2018an onartutakoa ordeztzen duena eta pertsonen aniztasuna errespetatzen duen espazio bat sortzea eta berdintasunezko harremanak sustatzea eta bermatzea helburu duena, Araubide Juridikoaren eta Funtzio Publikoaren Zuzendaritza Nagusiaren lehenetsunezko berdintasun-ekintzat hartzen da.

Horrela, funtzio publikoaren oinarritzko zutabe bat da, pertsona guztientzako berdintasunezko ingurune segurua eskaintzen duena, berdintasun-politiken eta laneko arriskuen prebentzioaren esparruan.

Arestian adierazitakoa lortzeko, protokoloak jarduketa-prozedura bat arautzen du aurkezten diren kexa eta/edo salaketei irtenbidea emateko, betiere prebentzio-neurriak nahikoak izan ez badira. Horrela, Protokolo honen ondorioetarako, bi ekintza mota daude:

- ✓ Jazarpen-egoerak edo jazarpena izan daitezkeen egoerak prebenitzeko eta saihesteko neurriak ezartzea.
- ✓ Jarduketa-prozedura bat ezartzea jazarpenagatiko kexa edo salaketa bat gertatzen den kasuetarako.





2.- KONTZEPTU ESPARRUA

2.1 Sexu-jazarpena

Sexu-izaerako edozein jokabide, hitzekoa, hitzik gabekoa edo fisikoa –bai pertsonarentzat berarentzat, bai hirugarren batentzat–, pertsona baten duintasunaren aurka egiteko asmoa edo ondorioa duena, batez ere ingurune larderiatsua, apalesgarria edo iraingarria sortzen denean eragindako pertsonarentzat.

Beraz, hauen gisako jokabidea direla ondorioztatu behar da:

- Jasotzen dituen pertsonak nahi ez dituenak.
- Sexu-izaerakoak edo sexu-konnotazioak dituztenak.
- Haien helburua da pertsona baten duintasunaren aurka egitea edo ingurune larderiatsua, etsaitasunezkoa, apalesgarria, umiliagarria edo iraingarria sortzea.

Jazarpen mota horiek, portaera eta praktika onartezinen bidez, edo portaera eta praktika horien mehatxuen bidez, eremu digitalean egindakoak barne, behin bakarrik edo behin eta berriz agertzen badira ere, besteak beste, honako modu eta ekintza hauen gisa azal daitezke:

2.1.1 Hitzeko jokabideak:

- Sexu-xantaia egitea. Horren ondorioz, jazarpena jasaten duen pertsonak bi aukera izango ditu: batetik, erasotzailearen sexu-eskakizunei men egitea, eta, bestetik, enplegua galtzea edo zenbait onura edo lan-baldintza galtzea, hala nola lan-sustapenerako aukera, prestakuntza jasotzeko aukera, soldata-igoera edo lekualdatzeko aukera, besteak beste.
- Sexu-harremanak izateko presioa edo hertsapena egitea.
- Sexu-harremanak izan dituen pertsona erakusten duten argazki edo bideoak zabaltzarekin mehatxatzea eta/edo zabaltzea.
- Pertsona baten bizitza sexualari buruzko zurrumurruek zabaltzea.
- Antz edo itxurari buruzko ohar iradokitzaileak eta desatseginak, txisteak edo iruzkinak egitea, bai eta eduki libidinosa duten ahozko abusu deliberatuak ere.
- Sexu-mesedeak iradokitzea edo eskatzea.
- Sexu-iradokizun edo eskaeretako bati uko egin ondoren, errepresaliek mehatxatzea.
- Sexu-bizitzari buruz galdetzea.





- Norberaren trebetasun edo gaitasun sexualei buruz behin eta berriz hitz egitea.
- Zitak behin eta berriz inbaditzea edo eskatzea, ezezkoa eman denean.
- Sexu-gaiei buruzko komunikazioak (deiak, bideo-deiak, bideoak, mezuak...).

2.1.2 Hitzik gabeko jokabideak

- Keinu edo mugimendu lizun errepikatuak.
- Gutunak, oharra, posta elektronikoko mezuak, argazkiak edo sexu-eduki iraingarria duten beste bitarteko telematiko batzuk.
- Begirada lizunak gorputzari.
- Eduki sexuala duten Interneteko grafikoak, binetak, marrazkiak, argazkiak edo irudiak erabiltzea.
- Pertsonak ezkutuan begiratzea erreserbatutako lekuetan, hala nola bainugeletan eta aldageletan.

2.1.3 Portaera fisikoak

- Nahita eta nahi gabe kontaktu fisikoa izatea (ukituak, igurtziak, atximurrak...).
- Pertsona baten mugimendua zailtzea, kontaktu fisikoa bilatuz.
- Hurbilketa fisiko handiegia izatea.
- Pertsona batekin behar ez den moduan gelditzea nahita bilatzea edo zokoratzea.





2.2 Sexuan oinarritutako jazarpena

Nahi ez den hitzeko portaera, hitzekoa ez dena edo fisikoa, lan-harremanen esparruan edo lan-harremanetan gertatzen dena, pertsona baten aurka zuzendua, pertsona horren sexua dela-eta, pertsona horren duintasunari erasotzeko edo ingurune larderiatsua, etsaitasunezkoa, apalesgarria, umiliagarria edo iraingarria sortzeko helburuarekin edo efektuarekin.

Kasu horietan, ez da nahitaez portaera fisikorik egon behar; aitzitik, funtsean morala eta psikologikoa den jazarpena ere bada, ingurumen-jazarpena, hierarkian goragokoek, lankideek edo hierarkian beheago daudenek egin dezaketena.

Jasotzen dituen pertsonak nahi ez dituen portaerak eta ekintzak dira, pertsona baten sexuarekin edo sexu-joerarekin lotutakoak. Jokabide eta ekintza horien helburua duintasunaren aurka egitea edo larderiako ingurunea, etsaitasunezkoa, apalesgarria, umiliagarria edo iraingarria sortzea da.

Jazarpen-mota horren adierazpenak, besteak beste, honako modu eta ekintza hauetan adieraz daitezke:

- Umore matxista erabiliz.
- Tradizionalki beste sexuak bere gain hartu dituen zereginak beren gain hartzen dituzten pertsonak barregarri utziz.
- Adierazpen sexistak eta iraingarriak erabiliz, betiere gaitasun horiek, gaitasun teknikoak edo trebetasunak gutxiestea dakartenak. Adibidez: "emakumea izan behar, bai", "garbitzeko baino ez duzu balio",...
- Pertsonari, haren lanari, gaitasunei, gaitasun teknikoei edo trebetasunei buruzko deskalifikazio publikoak eta/edo pribatuak eginez, behin eta berriz, eta betiere sexua dela eta.
- Pertsonaren sexua dela-eta, agindu iraingarriak emanaz.
- Pertsona bati bere gaitasuna baino erantzukizun txikiagoko lanpostu edo eginkizun bat emanaz, sexua dela-eta.
- Hierarkian gorago dauden emakumeen aginduak betetzeari edo jarraibideak betetzeari uko eginez.
- Pertsonak, sexuaren arabera, adingabeak, mendekoak edo intelektualki apalagoak balira bezala tratatuz, hitz egiteko edo harremanetan jartzeko moduan.
- Pertsona batek eskubidez dituen lizentziak eta/edo baimenak ukatuz, modu arbitrarioan eta sexu-arrazoiengatik.
- Indar fisikoa baliatuz, sexu bat bestearen gainetik dagoela erakusteko.





- Garapen profesionala eta eguneroko lana oztopatuz sexu-arrazoiengatik. Adibidez: baliabide egokiak eskuratzea galaraziz, egiten diren ekarpenak alde batera utziz edo norbaiten sexuan oinarrituta muturreko eta etengabeko zaintza eginez. (Mansplaining, Manspreading).

2.3 Sexu-askatasunaren aurkako jokabideak

Pertsona baten aurkako jokabideak edo ekintzak, sexu-orientazioagatik, genero-adierazpenagatik edo - identitateagatik, baldin eta iraingarritzat, umiliagarritzat, bortitzzat edo larderiakotzat jo badaitezke edo duintasunari erasotzeko edo/eta ingurune diskriminatzailea, larderiatsua, etsaitasunezkoa, apalesgarria, iraingarria edo bereizia sortzeko asmoa edo ondorioa badute.

2.4 Inguruneko jazarpena:

Jazarleak ingurune larderiatsua, etsaitasunezkoa, apalesgarria, umiliagarria edo iraingarria sortzen du biktimarentzat, sexu-izaerako nahi gabeko jarrera eta portaeren ondorioz. Enpresako edozein kidek egin dezake, bere posizioa edo estatusa edozein dela ere, edo lan-ingurunean nolabait kokatutako hirugarren pertsonak.

3.- APLIKAZIO-EREMUA

Protokolo hau Bizkaiko Foru Aldundiko langile guztiei aplikatuko zaie (karrerakoei, bitartekoei, lan-kontratuko langileei, behin-behinekoei), baita kargu politikoei, praktiketako langile guztiei eta foru-erakunde horretan eginkizunak betetzen dituzten bekadun guztiei ere.

Bi jazarpen mota horietako edozein edo sexu-askatasunaren aurkako jokabideak Foru Aldundiko langileen eta foru sektore publikoko edozein erakundetako langileen artean edo Aldundiari kontratu bidez lotutako kanpoko enpresetako langileen artean gertatzen badira, protokolo horretan jasotako prozedura aplikatuko da, baina neurri horiek haiekin koordinatuta hartuko dira, Lan Arriskuen Prebentzioari buruzko Legean ezarritakoarekin bat etorritik.

Era berean, lan-eremuan egindakotzat joko dira, instalazioetatik kanpo gertatzen badira ere, Administrazio honek bere langileei lan profesionala egiteko emandako edozein bitarteko edo gailu elektronikoren bidez egiten diren jokabideak, baita inplikaturako pertsonak Administrazio honen zerbitzura lan egiteagatik dauden edozein lekutan gertatzen direnak ere.

4.- PREBENTZIO-ESTRATEGIAK

Jazarpenari edo jazarpena izan daitezkeen egoerei aurrea hartzeko, bai eta lan-ingurune segurua eta jazarpenik gabea bermatzeko ere, non aplikazio-eremuan dauden eta foru-erakundean eginkizunak betetzen dituzten pertsona guztien duintasuna eta sexu-askatasuna errespetatuko diren, edozein dela ere haien harreman juridikoa, protokolo honetaz gain, honako neurri hauek ezarriko dira:





4.1 Informazio-neurriak

- Bizkaiko Foru Aldundiko langile guztiei jakinaraztea sexu-jazarpenaren eta sexu-arrazoiengatiko jazarpenaren aurkako Printzipioen eta Orientabideen Adierazpena, Gobernu Kontseiluak 2020ko martxoaren 3an onartutakoa.
- Foru erakundearen errespetuzko eta zuzentasunezko ingurunea sustatzea, tratu-berdintasunaren, errespetuaren, duintasunaren eta nortasunaren garapen askearen balioak sustatuz, bai prestakuntza ekintzen bidez –Prestakuntza Planaren barruan–, bai langileak sentsibilizatzeko informazio-ekintzen bidez.
- BFAn lehen aldiz sartzen diren pertsonentzako prozedura bat ezartzea, BFaren protokoloari eta konpromisoari buruzko informazioa emateko, errespetuzko, duintasunezko, nortasunaren garapen askeko eta tratu-berdintasuneko ingurunea bermatzeko.
- Dauden legezko baliabide guztiak erabiltzea, eta, era berean, antzematen diren jazarpen-kasuak prebenitzeko eta horietan esku hartzeko behar diren antolamendu-baliabide guztiak eskaintzea.
- Eragindako langile guztiek protokolo hori ezagutzen dutela bermatzea, BFAk dituen dibulgazio-baliabide guztiak erabiliz. "Atarileku" intranetean sarbidea emango da, bai protokolorako, bai zuzeneko komunikaziorako, zalantzak argitzeko edo kexa edo salaketa aurkezteko.

4.2 Sentsibilizazio-neurriak:

- Sentsibilizazioa bultzatzen duten kanpainak edo mezuak etengabe bermatzea, bai lan-guneetan, bai intranet bidezko komunikazioetan.
- Egoerak hautemateko kontzientzia piztea eta sustatzea.

4.3 Prebentzio-neurriak:

- Prebentzio-neurri iraunkorren garapena bermatzea, protokoloak lotzen dituen langile guztien oinarritzko prestakuntza iraunkor eta progresiboaren bidez (Berdintasunerako Barne Planean garatu beharrekoa, 4/2018 Foru Araua, 32. g art., bai eta maila tekniko eta politikari guztientzako prestakuntza-plan bat garatzea ere, egoerak antzematea erraztuko duena eta buruzagitzaren edo postu arduratsuen jarrera aktiboa sustatuko duena).
- Arlo honetako jardunbide egokiak zabaltzea eta eguneratzea, eta langile guztiei helaraziko zaie, mezu aktibo bat mantenduz.
- Arrisku psikosozialen ebaluazioak aurreikustea.

5.- PRINTZIBIOAK, ESKUBIDEAK ETA PROZEDURA-BERMEAK

5.1 Printzipioak:

Sexu-jazarpenaren eta sexuan oinarritutako jazarpenaren arloko kexa edo salaketei buruzko informazio guztia honako printzipio hauen arabera erabiliko da:





- Tartean diren pertsonen intimitatea, konfidentzialtasuna eta duintasuna babestea. Protokoloaren garapenean esku hartzen dutenek behar bezalako arduraz bete behar dituzte beren zereginak, eta konfidentzialtasun-printzipioaren arabera jardun behar dute. Printzipio horiek, besteak beste, Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren Legearen testu bategina onartzen duen urriaren 30eko 5/2005 Errege Dekretuan araututako Jokabide Kodea inspiratzen dute.
- Ustez jazarria izan den pertsona babestea, Aldundiaren esparruan laneko segurtasunari eta osasunari dagokienez.
- Salaketa jartzen duen pertsonaren nortasuna eta inguruabarrak babesteko bermea.
- Kasuan inplikaturik ez dauden alderdi edo pertsonen informazioa ez zabaltzea, ikerketarako beharrezkoa denean izan ezik.
- Prozedura arina eta azkarra, betiere sinesgarritasuna, gardentasuna eta ekitatea eskainiz.
- Intersektionalitatea, zeharkako printzipio gisa egoerak identifikatzean eta informazio-, sentsibilizazio- eta prebentzio-neurrietan.
- Jazarpena jasan duenaren eta/edo protokoloa aktibatzen eta aplikatzen lagundu duten pertsonen birbiktimizazioa saihestea, jarduketa-prozeduraren edozein fasetan. Gertaeren kontakizuna eta salatzailearen jendaurreko azalpena eta hura identifikatzeko datuak alferrik errepikatzea saihestuko da.
- Administrazioak, bere eskumenen esparruan, pertsonaren indarkeria-egoerei erantzungo dien arreta integrala, doakoa, irisgarria eta espezializatua izateko eskubidea bermatzea.

5.2 Eskubideak:

5.2.1 Kexa edo salaketa aurkezten duen pertsona:

- Bidezko tratua jasotzea.
- Prozesu osoan zehar konfiantzazko norbaitekin egotea.
- Salaketaren erregistrorik espediente pertsonalean jasota geratuko ez delako bermeak jasotzea – salaketa hori fede onez egin bada-; hala ere, Araubide Juridikoaren eta Funtzio Publikoaren Zuzendaritza Nagusiaren unitatean, egindako jarduketak jasota geratuko dira.
- Salaketaren bilakaerari buruzko informazioa jasotzea.
- Kexaren edo salaketaren ondoriozko ekintza zuzentzaileei buruzko informazioa jasotzea.

5.2.2 Sexu-jazarpena edo sexuan oinarritutako jazarpena leporatzen zaion pertsona

- Bidezko tratua jasotzea.
- Kexaren edo salaketaren berri izatea.
- Salaketaren kopia bat jaso eta erantzun.
- Prozesu osoan zehar konfiantzazko norbaitekin egotea.
- Salaketaren bilakaerari buruzko informazioa jasotzea.





5.3 Bermeak

Ez da onartuko errepresaliarik izatea ikerketetan parte hartzen, laguntzen edo lekukotza ematen duten pertsonen aurka, ez eta era horretako edozein jokabide salatu edo kritikatzan duten pertsonen aurka ere, dela beren buruari buruz, dela hirugarrenei buruz.

Aitzitik, jazarpenaren ustezko biktimari edo salatzaileei prozeduran zehar errepresaliak edo kalteak eragiten bazaizkie, horiek, gutxienez, prozeduraren aurretik zeuden baldintzetara itzuliko dira, egoera hori dela-eta hasi nahi den beste edozein prozedura eta horrek dakartzan ondorioak alde batera utzi gabe.

Hirugarrenen salaketak, alegazioak edo adierazpenak, nahita egin direla, zintzoak ez direla edo doluzkoak direla frogatzen bada, diziplina-jarduera izango dira, zuzenbidean legezkiokkeen gainerako jardueri kalterik egin gabe.

Salaketa oinarritzat jo ahal izateko beharrezko frogarik ez badago, salatzailea eta/edo ustezko biktima ezin izango da behartu salatuarekin bere borondatearen aurka lan egitera. Horretarako, Laneko Arriskuen Prebentziorako eta Osasunerako Zerbitzuak balorazio-txosten bat egingo du salatzailea eta/edo ustezko biktima lanpostuz aldatzeko eta lekuz aldatzeko premiarik dagoen ala ez argitzeko.

6. SALAKETA ETA AHOLKU ETA LAGUNTZA BATZORDEAREN OSAERA:

6.1 Salaketa:

Jazarpen-susmoei buruzko kexa edo salaketa aurkeztu ahal izango du honako baldintza hauek betetzen dituen edozein pertsonak:

- Eragindako pertsona eta/edo haren legezko ordezkaria.
- Egoeraren berri duen edo horren lekuko den langilea.
- Prebentzioko ordezkaria edo langileen ordezkaria.
- Sailarteko Talde Teknikoko kidea/Berdintasuna Taldea.

6.2 Aholku eta Laguntza Batzordea

Aholku eta Laguntza Batzordea arduratzen da prozedura kudeatzeaz, protokolo honen 7. atalean zehaztutako baldintzetan. Hona hemen osatzen dutenak:

- Funtzio Publikoko Zuzendariorde eta hark eskuordetutako pertsona; batzordeburu gisa jardungo du.
- Laneko Arriskuak Prebentziorako eta Osasunerako Zerbitzuko burua edo hark eskuordetzen duena.
- Genero Politiken eta Aniztasunaren Idazkaritza Teknikoa edo hark eskuordetzen duena.
- Laneko Arriskuen Prebentziorako eta Osasunerako Zerbitzuko psikologo bat.
- Prebentzioko ordezkarien ordezkari bat, Langileen Batzordeak edo Enpresa Batzordeak ezartzen duen izendapen-sistemaren arabera.
- Langileen Zerbitzu Juridikoaren Aholkularitza eta Arau Garapenerako Ataleko Burutza edo hark eskuordetzen duen Zerbitzuko pertsona; idazkari gisa jardungo du.





Ahaleginak egingo dira osaera horrek ordezkariak orekatua izan dezan, eta, era berean, kideek berdintasunari eta indarkeria matxistari buruzko oinarrizko prestakuntza izan beharko dute, bereziki sexu-jazarpenari eta sexu-arrazoiengatiko jazarpenari dagokienez.

Batzorde honetako kideek, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legearen 23-2 artikuluan adierazitako egoeraren bat duten Aldundiko beste edozein langilek eta agintarik bezala, ez dute esku hartuko Protokolo honetan arautzen den prozeduran, eta interesdunek edo ukituek errekusazioa eskatu ahal izango dute izapideen edozein unetan. Parte ez hartzeko arrazoiren bat egonez gero, edo ezinbesteko arrazoiren bat dela-eta Batzorde honetako pertsonaren batek prozedura horretan parte hartu ezin badu, ordezkari pertsona bat izendatuko da –kasu zehatz honetarako–, eta ordezkari horrek Batzordeko gainerako kideek duten prestakuntza izan beharko du.

Batzordeak, bere ahalmenei kalterik egin gabe, aholkularitza konfidentzial bat izendatu ahal izango du. Aholkularitza hori Arriskuaren Prebentzio eta Lan Osasuneko Zerbitzuko psikologo batek eta Berdintasuneko teknikari batek osatuko dute, eta lehenengo edo lehen elkarrizketak egingo dituzte, pertsonaren informazioa biltzeko eta jasotako informazioaren arabera jarduteko bideak azaltzeko.

7. JARDUTEKO PROZEDURAREN FASEAK

7.1 Hasiera:

Lan-eremuan sexu-jazarpenaren edo sexu-arrazoiengatiko jazarpenaren susmoa dagoenean hasiko da prozedura. Susmotzat hartuko dira Bizkaiko Foru Aldundian lan egiten duen pertsona batek itxuraz edo ageriko moduan bi jazarpen horietako edozein jasaten ari den usteak, protokolo honen 2. atalean adierazitako moduan.

Prozedura hori hasiko da, alde batera utzita ustez jazarria izan den pertsonak salaketa bat aurkezten duen Lan Ikuskaritzan edo organo judizial eskudunetan. Hala ere, har daitezkeen kautela-neurriak alde batera utzi gabe, akzio bat bide judizialek aurkezteak eten egingo du protokolo honetan jasotako prozedura.

Jazarpen-susmoei buruzko kexa edo salaketa aurkeztu ahal izango du 6.1 zerbait adierazitako edozein pertsonak.

7.2 Metodoak

Prozedurak metodo informala zein formala du egoerari aurre egiteko. Salatzaileren eskubidea da metodo informal baten alde egitea edo uko egitea, eta ebazpena metodo formal baten bidez aukeratzea.

Prozedura bi metodo horietako edozeinen bidez abiarazteaz gain, Aholku eta Laguntza Batzordeak –egoki baderitza–, ustezko jazarpen-egoerek jarraitzea eragozteko eta salatzaileren segurtasuna eta osasuna zaintzeko, beharrezko kautelazko neurriak proposatuko dizkio Araubide Juridiko eta Funtzio Publikoko Zuzendaritza Nagusiari, arreta berezia jarritz ustezko biktimarengandik eta salatutako pertsonarengandik urruntzeari –hala badagokio–. Kautelazko neurriak hartzeak ez die kalterik egingo bi alderdien lan-eskubideei. Aldaketa nagusituko da, ustezko biktima bere lekuan mantenduz, egokiena irizten bazaio.





7.2.1 Metodo informala:

Azkar eta isilpean egin behar da, eta jazarpen-egoera konpontzea du helburu, eragindako kaltea konpontzeko eta irtenbidea emateko.

Aholku eta Laguntza Batzordeari ahozko komunikazioa eginez –kexa gisa– edo horrelako egoeretarako sortzen den eta Aldundiko langile guztiek horren berri duten helbide elektronikoa batera idazki labur bat bidaliz hasi ahal izango da, .

Kexa horren azterketa eta balorazioa –salaketa deituko ez dena, salaketa metodo formalean egingo dela uste baita– aholkularitza konfidentzialak egingo du, jazarrita sentitzen den pertsonari elkarrizketa bat eginez egoeraren hasierako balorazioa egiteko, izan ditzakeen zalantzen eta sor daitezkeen aukera eta ekintza guztien berri emanez.

Elkarrizketa horretatik abiatuta, besteak beste, ustezko erasotzailearekin eta kexaren xede den pertsonarekin bilerak egin ahal izango dira, edo aditu baten esku-hartzea eskatu ahal izango da beharrezkotzat jotzen duen eremuren batean, sexu-jazarpena edo sexu-arrazoiengatikoa jazarpena eteteko eta bi alderdiek onartutako irtenbide bat lortzeko.

Kexa aurkeztu eta gehienez ere hamar (10) egun balioduneko epean, Aholkularitza Konfidentzialak balizko jazarpenari buruzko informazioaren trinkotasuna baloratuko du, eta azaldutako gertakarien kongruentzia edo gertakari horietan zehaztasunik eza eta kontraesanak daudela ikusi ahal izango du. Azkenik, honako hauek proposatuko ditu:

- Jazarpenik ez egotea.
- Jazarrita sentitzen den pertsonak eta kexaren xede den pertsonak jarduketa identifikatu eta aztertuko dute, eta azkenak konpromisoa hartuko du dokumentu idatziaren bidez ez erreplikatzeko.
- Kasua konpontzeko zenbait jarduketaren proposamena, bi alderdiak ados daudela eta bat datozela adieraziz.

Jazarpena jasan duen pertsona ez badago ados proposatutako irtenbidearekin edo konponbidearekin, proposatutako konponbidea betetzen ez badu kexaren xede den pertsonak, edo Aholku eta Laguntza Batzordeak aztertu eta balioetsitako jarduerak, azkenean, larritzat edo oso larritzat jotzen badira, modu formalari ekingo zaio.

Metodo informalean hartutako konponbidearen edo ekintzen berri emango zaio Aholku eta Laguntza Batzordeari. Batzorde horrek egingo ditu balorazioa eta azken ondorioak, eta berak erabakiko du zer jarraipen mota egin behar den.

Ebazpen hori jakinaraziko zaie biktimari edo ustezko biktimari, salatzaileari –biktima ez bada–, Berdintasunerako Zuzendaritza Nagusiari eta Segurtasun eta Osasun Batzordeari.





7.2.2 Metodo formala:

Metodo hori abiaraziko da, dela metodo informalaren emaitza espero zena izan ez delako, dela Aholkularitza eta Laguntza Batzordeak jarduerak larrizat edo oso larrizat jo dituelako. Batzordeak zuzenean sustatu beharko du metodo hori, edo, azkenik, bere burua jazarritzat duen pertsonak metodo horretara jo dezakeelako metodo informalera jo gabe, hala nahi badu.

Salaketa idatziz aurkeztu beharko da horrelako egoeretarako sortutako helbide elektroniko batean, eta Aholku eta Laguntza Batzordera bidaliko da. Batzorde horrek, inplikaturako alderdien identitatea gordetzearen, zenbakizko identifikazio-kode bat esleituko dio, une horretatik aurrera sortutako dokumentazio guztian agertuko dena.

Era berean, Batzordeak salaketa horren berri emango die Araubide Juridikoaren eta Funtzio Publikoaren Zuzendaritza Nagusiei, Berdintasunekoei eta Segurtasun eta Osasun Batzordeari.

Salaketa ahalik eta azkarren aurkeztu dela jakinaraziko zaio salatuari, eta idatziz egingo zaio zitazioa –entzunaldi-izaerarekin–, hurrengo zazpi (7) egun baliodunetan, salaketa bat dagoela jakinaraziz, eta ohartaraziko zaio salaketaren aurrean ez agertzea instrukzio-egintzat har daitekeela gertakariak ikertzeko orduan. Emango zaion entzunaldia salatzailearen aurrean izango da edo ez, salatzaileak hala aukeratuta. Bi alderdietako edozeinek –salatzaileak eta/edo salatuak– prebentzioko ordezkari bat edo, egoki iritziz gero, beste langile batzuk bertaratzea eskatu ahal izango du lekukotzen froga eratzeko.

Ondoren, Aholku eta Laguntza Batzordeak gertakariak ikertuko ditu, eta bi aldeak elkarriketatuko ditu, baita lekukoak edo inplikaturako hirugarren pertsonak ere, halakorik balego. Hala, beharrezkotzat jotzen bada, kanpoko aholkularitza eskatuko die sexu-jazarpenaren eta sexu-arrazoiengatiko jazarpenaren prebentzioaren eta jardunaren arloan adituak diren pertsona edo erakundeei, bereziki Emakunderi eta Osalani. Era berean, foru-sailetako agintari eta langile guztiek Batzorde horri eman behar dizkiote, ikerketa eta instrukzioa egin bitartean, beharrezko aurrekariak eta txostenak, bai eta jarduerak garatzeko behar dituzten giza baliabideak eta baliabide materialak ere.

Ikerketa hori balorazio-txosten batean gauzatuko da. Txosten hori, gehienez ere, hamabost (15) egun balioduneko epean egin beharko da, lehen aipaturako entzunaldia egin zen egunetik zenbatzen hasita. Hala ere, epe hori luzatu ahal izango da, justifikatuta, gehienez ere hamar (10) egun balioduneko epean. Txosten horretan, honako hauek adieraziko dira: ateratako ondorioak, ikusitako inguruabar aringarriak edo astungarriak eta, hala badagokio, dagokion ebazpen-proposamena.

Ebazpen-proposamenak honako egoera hauek jaso ahal izango ditu:

- Salaketa artxibatzea, objekturik ezagatik edo zantzurik ezagatik, salatzaileak atzera egin duelako –salbu eta, ofizioz, salaketa ikertzen jarraitzen badu jazarpen-zantzurik antzemanaz gero– edo aurretiazko jarduketetatik salaketaren edukia ebaztitzat eman daitekeenean, eta, hala badagokio, alderdien artean lortutako akordioa islatu delako.
- Diziplina-espeditzea hasia sexu-jazarpenaren edo sexu-arrazoiengatiko jazarpenaren zantzu argiengatik; bai Euskal Enplegu Publikoari buruzko 11/2022 Legearen 178.c artikuluan, bai Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako eta Emakumeen aurkako Indarkeria Matxistatik gabeko Bizitzetarako Legearen testu bategina onartzen duen 1/2023 Legegintzako Dekretuaren 47.4 artikuluan xedatuta





dagoenez, bi jazarpen-adierazpenak diziplina-falta oso larritzat har daitezke, eta 11/2022 Legearen 183. artikuluan aurreikusitakoaren arabera zehatu. Kasu horretan, Aholku eta Laguntza Batzordearen balorazio-txostena erabaki beharreko diziplina-espedientearen aurretiko informazio-espeditetzat hartuko da.

- Diziplina-espedientea irekitzea, kasuaren azterketatik ondorioztatzen bada beste hutsegite bat egin dela, sexu-jazarpenaz edo sexuan oinarritutako jazarpenaz bestelakoa, Euskal Enplegu Publikoaren Legean tipifikatua.

Nolanahi ere, Aholku eta Laguntza Batzordeak Araubide Juridikoaren eta Funtzio Publikoaren Zuzendaritza Nagusiari eskatuko dio beharrezkotzat jotzen diren neurriak har ditzala, salatutako jarduerak berehala geldiarazteko. Nolabaiteko arrisku psikosoziala dagoela ikusiz gero, proposamen horretan arrisku psikosozialen ebaluazioa egiteko eskatuko da, arriskua ebaluatzeko eta dagozkion neurriak hartzeko.

7.3 Amaiera

Hartutako ebazpena alderdiei helaraziko zaie prozesuan zehar, eta alderdiek alegazioak aurkeztu ahal izango dituzte gehienez ere zazpi (7) egun balioduneko epean, eta alegazioak aurkeztu eta gehienez ere beste zazpi (7) egun balioduneko epean ebatziko dira.

Aholku eta Laguntza Batzordeak atzera bota ahal izango ditu aurkeztutako alegazioak, aurretik planteatutako ebazpena ontzat emanez, edo guztiak edo horietako batzuk onartu ahal izango ditu (kasu honetan, ebazpen-proposamena aldatuz).

Ondoren, ebazpen-proposamena Araubide Juridikoaren eta Funtzio Publikoaren Zuzendaritza Nagusiari bidaliko zaio, hark behin betiko ebazpena eman dezan. Ebazpen hori jakinaraziko zaie biktimari edo ustezko biktimari, salataileari -biktima ez bada-, salatuari, Berdintasunerako Zuzendaritza Nagusiari eta Segurtasun eta Osasun Batzordeari.

8. JARRAIPENA:

Jarraipena egingo da, eragindako pertsonari konponketa-neurriak betetzen zaizkion ikusteko, bai eta konponketa-neurri sinbolikoak ere, espazioan eta lantaldean.

Laneko Arriskuen Prebentziorako eta Osasunerako Zerbitzuak jarraipen-txosten bat egingo du urtero protokolo honen aplikazioari buruz, eta, horretarako, aurkeztutako kexak eta salaketak kontrolatu eta erregistratuko ditu, bai eta metodo informal zein formalen bidez izapidetutako espedienteak ebatziko ditu, bai eta metodo formalaren ondoriozko balorazio-txostenak eta alegazioak ere.

